

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, DURANGOKO HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO EKIMENAK GARATZEKO

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Durangoko Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea norgehiagoka erregimenean, 2026ean zehar, Durango udalerriaren esparruan haur eta gazteei zuzendutako urteko aisialdiko ekimenen programak bultzatzeko eta garatzeko, eta, betiere, elkartegintza, boluntarioria, elkartasuna, errespetua eta diskriminazio eza indartzeko balore moduan. Eta hau guztia, kontuan izanik Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen ordenantzaren 8. artikulua ezartzen duena.

Diruz lagunduko dena da haur eta gazteei zuzendutako urteko aisialdiko ekimenen programak garatzea, baldin eta Durangoko Udalak edo bere erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri badira edo ordezkatzeko badituzte eta, betiere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

2. artikulua. Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du diru-laguntza, lege horren 22.1 artikuluekin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2026ko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2025-2027 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, eta bertan informazio hau dago:

Kodea: 3.3340.2.HGE

Diru-laguntza: Haur eta gazteei zuzendutako ekimenak garatzeko diru-laguntza deialdia

Zenbatekoa: 25.000€

Partida: 41.3340.48101

3. artikulua. Onuradunak

Eusko jaurlaritzako elkartearen erregistroan izena emanda dauden Durangoko haur eta gazte elkarteak eta ikastetxeetako guraso elkarteak izan daitezke diru laguntza hauen subjektu onuradun eta, betiere, euren helbide soziala Durangon badute. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak elkartearen helburuekin bat etorri beharko dira.

Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan diru laguntza deialdi honen helburuen sustapenean.

Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute Durangoko Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen zerga, tasa, arbitrio eta zehapenen ordainketan.

4. artikulua. Dokumentazioa aurkezteko lekua

Eskariak **egoitza elektronikoan** aurkeztu behar dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

a) Dirulaguntza eskari normalizatua.

Aurreko urteetan diru laguntza eskatu ez zuten entitateek, edo bere datuetan aldaketak izan dituztenek, ondorengo agiriak ere aurkeztu behar dituzte:

b) Entitate eskatzailearen estatutuak.

- c) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitateen erregistroaren inskripzio-egiaztagiria.
- d) Identifikazio Fiskalaren Kodea.
- e) Elkartearen ordezkartza egiaztatzen duen agiria

Durangoko Udalak, Bizkaiko Elkarrengarritasunerako Nodoaren bidez eta dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, laguntza honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu.

Arrazoi teknikoengatik elkarrengarritasuna ezinezkoa bada, Durangoko Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

5. artikulua. Epea

Eskabideak hamabost (15) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera Durangoko Udalaren herritarren atarian egin daitekeen publikazio osagarriaren kaltetan izan gabe.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskarian atzera egindakotzat joko dela, eta hala ebatziko da 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 68. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.

6. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Erakunde eskatzaileen artean banatuko den diru-kopurua hogeita bost mila (25.000) euro da, 41.3340.48101 aurrekontu-partidari dagokiona.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrianen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

7. artikulua. — Baloratzeko irizpideak

Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan.

- a) Ekintzen kalitatea eta interesa. Gehienez ere 30 puntu.
- b) Durangoko udalerrian elkarreak duen ezarpena eta transzendentzia haur eta gazteria arloan. Gehienez ere 15 puntu.
- c) Proiektuak zer-nolako bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa duen: gehienez ere 15 puntu.

- d) Euskeraren erabilera: gehienez ere 15 puntu.
- e) Programetako elementu hauen integrazio maila: aukera-berdintasuna, kultur aniztasuna, gabezia fisikoa edo psikikoa daukaten pertsonak: gehienez ere 10 puntu.
- f) Durangoko Udalak antolatutako jardueretan edo/ta udal kontseiluetan parte hartzea edo beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzea. Gehienez ere 15 puntu.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira. Ekintzak orokorrean puntuatuko dira.

Diruz lagunduko diren ekintzetarako aurrekontu-partidaren banaketa era honetan egingo da:

- a) Eskatuko den dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak ezingo du eskatzaileak aurkeztutako gastu-kopuru osoaren aurrekontuaren % 70 gainditu, beti egin beharreko egokitzapenak egin ostean. Portzentaje honi balorazioan lortutako puntuak aplikatuko zaizkio, diru laguntzaren azkeneko zenbatekoa zehazteko.
- b) Lehen eragiketa batean, ordainduko den dirulaguntzaren ehunekoa erabakiko da, betiere, aurreko baremoaren arabera lortutako puntuazioa kontuan izanda. Alde batera utziko dira 50 puntu lortu ez duten eskariak.
- c) Aurreko eragiketa egin ostean, banatuko diren dirulaguntzen kopuruak aurrekontu-aurreikuspena gainditzen badu, bigarren eragiketa bat egingo da, eta bertan gutxitu egingo dira banatu beharreko dirulaguntza guztiak proportzio berean.
- d) Entitate onuradun bakoitzeko gehienezko diru laguntza 7.000 euro da.

8. artikulua. — Instrukzioa eta ebazpena

Ebazteko organo eskuduna Alkatea edo hark eskuordetzen duena izango da, eta hark emango du ebazpena, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako instrukzio-egintzak egin ondoren. Hona nola:

- a) Eskabidea aurkezteko unean, dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatuko da zerbitzu kudeatzaile gisa. Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean aurreikusitako baldintzetan emandako ebazpenaren ondoren.
- b) Eskabideak Alkateak edo hark eskuordetzen duenak ebatziko ditu, gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean, aurkezten direnetik hasita. Eskabideen berri sozietate kudeatzaileak emango du, eta, hala badagokio, Herrigintza Saileko Informazio Batzordearen emakida-proposamenarekin batera aurkeztuko dira.

Aipatutako epea igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

9. artikulua. — Dirulaguntza ordaintzea

Diru-laguntzaren %80a jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, 11. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. artikulua. — Betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Diruz lagundu d(ir)en jarduera(k) egitea.
- b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Durangoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta Eskuhartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere. Horrez gain, laguntza eskainiko dute ikerketa-gai diren lokaletara sartzeko edota bertako dokumentazioa eskuratzeko askatasuna eskainiko dute, baita dokumentuen kopiak egiteko ere.
- e) Diruz lagundutako jarduerari buruz, entitate onuradunak euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko du argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.
- f) Erakunde emaileari, hala denean, Estatuko edo nazioarteko administrazio edo herri erakundeengandik helburu bera lortzeko beste diru-laguntzaren bat jaso izana jakinarazi behar diote.
- g) Durangoko Udala sartzeko jardueraren babesle moduan, bai idatzizko edo argitalpenetan, eta bai beste komunikabide motetan egindako iragarkietan.
- h) Durangoko Udalari baimena ematea diru-laguntzaren funtsak behar bezala erabili direla egiaztatzeko.

11. artikulua. — Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate onuradunak, **2027ko otsailaren 28a** azken eguna izanez, jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) **Egindako jardueraren memoria.** Diru-laguntza justifikatzeko eredia behar bezala beteta. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira eta, halaber, aipatutako jarduerarako jasotako beste edozein dirulaguntza publiko zein pribatu ere. Jarduera bat baino gehiagorako laguntza eskatzen bada, denak egin beharko dira, bestela egin gabe geratu den jarduerarako emandako diru laguntza kopurua bueltatuko da.
- b) **Diru-sarreraren eta gastuen balantze xehatua.** Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, erakunde onuradunak diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren aurrekontu osoari dagozkion diru-sarreraren eta gastuen balantze xehatua aurkeztu beharko du, eta ez emandako laguntzari dagozkionak bakarrik. Bertan, finantzaketa iturri guztiak zehaztu behar ditu. Balantzea justifikazio agirian jasotako ereduaren arabera egingo da.
- c) **Egindako gastuen fakturak.** Fakturak diru laguntzaren xede diren jarduerak eta helburuak gauzatzearen ondoriozko gastuei dagozkie, zuzenean eta eskusiboki, aurkeztutako eskabidean aurreikusitakoaren arabera. Horretarako, erakunde onuradunaren izenean egindako fakturak



aurkeztu beharko dira, deialdiaren ekitaldi ekonomiko berekoak.

Ez dira justifikagarritzat hartuko diru laguntzaren helburuarekin zerikusirik ez duten gastuak edo diruz lagundutako jarduerak ez direnak.

Faktura bakoitzarekin batera **ordainagiria** aurkeztu beharko da.

Faktura bidez justifikatu beharreko gastua ondorengo formulatik aterako da: aurrekontu oso depuratua bider emandako dirulaguntza zati eskatutako dirulaguntza depuratua. Justifikatu beharrekoa justifikatu ezik, proportzionaltasunaren araua aplikatuko da.

- d) **Publizitate euskarriak.** Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkie: azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen ale bana. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko. Euskarri guztietan Durangoko Udalaren babesagertu behar da.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakundearen identifikazioa
- Hornitzailearen identifikazioa
- Fakturaren data
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa

Ez dira onartuko:

- Elkarrekin barruko bazkariak, eta halakoak.

12. artikulua. Dirua itzultzea

Justifikatzeko betebeharraren konpromisoak edo diru-laguntza honetan jasotako beste batzuk betetzen ez badira, itzulketa-prozedura izapidetuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 41. eta 42. artikuluetan eta hura garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. Araudi osagarria

Diru-laguntza honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria

14. artikulua. Datuen babesa

Durangoko Udalak kirolaren eta kirol-jardueren antolaketa eta sustapenaren eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduen kudeaketaren esparruko datuak tratatzen ditu, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera. Datu pertsonalak Durango Kirolak toki-erakunde autonomoari eta arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari eta finantza-erakundeei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus